

**Kolektibitatea***colectividad/collectivité*

Barne-batasuna duen talde sozial bat : leku berean bizitzeak, loturik dauden baldintzetan lan egiteak, edo \*interes eta helburu berberak izateak, ematen diote kolektibitateari elkartasuna eta partaidego-sentimendu bizi bat; sentimendu honek, azken buruan, batzen ditu kolektibitatearen partaideak.

KOLEKTIBISMOA.

**Kolkhoza***koljos/kolkhose*

KOLlektivnoie KHOZjaistvo (ekonomia kolektiboa)-ren laburkina, \*sovieten nekazal \*kooperatiba, 1929.eaz gero nekazal \*produktzio-enpresa nagusia Sovietar Batasunean (ik. SESB). 1950.ean Kolkhoz-sistemaren eraberrikuntza bat egin zen, hain zuzen Kolkhoz txikiak bateratu eta haundiak antolatzeko, errazago mekanizatzearen. Kolkhozetan lurraren jabe \*Estatua da; baina tresneria, etxalde, dirutza eta Kolkhozak berak produzitutako guztiaren jabe, kooperatiba; kooperatibaren lur eta ondasunekin ari da nekazaria lanean. Kolkhozak bere produktuak Estatuari saltzen dizkio (edo zuzenean kontsumatzaileari kolkhoz-merkatuan). Familia bakoitzak bere bizitokia, behi bat eta baratzetxo dituzte jabetza pribatu era, bere sostengua ateratzeko.

SESB; KOOPERATIBISMOA; KOOPERATIBA.

**Kolonia**

\*Kolonialismo klasikoa eta moderno berezten baditugu, kolonia hitzak (*colere/colonia* latinezkoetatik) adiera ezberdinak izan ditzake: 1.- herbestean kokatzen den herkiddeen multzoa (Parisko edo Madrileko euskal koloniak); 2.- herbestean kokatu den herkide-multzoa, baina \*lurralde berrian integratu (ik. INDEGRAZIOA) gabe, hau da, politiko-kultural eta komertzialki sorterrari (ik. ABERRIA) loturik iraunez (Mediterranioko feniziar koloniak); 3.- lurralde berrian herkide edo kolono-multzo hau nagusiturik, propioki kolonia zeritzon multzoa soilki ez, baina haien bidez inguru guztia ekonomikoki, (eta agian militar eta politikoki ere bai), haien sorterriaren menpean ezarriz gero, kolonia derituz lurralde osoari (Ameriketako espainol koloniak). Hiru adiera hauetan erabili da klasikoki kolo-

nia hitza eta hiruretan \*metropolitik hel-dutako jendearen \*lana (lat. *colere/cultum*) edo kultura kontsideratzen zen kontzeptuaren oinarri: inmigranteen (ik. MIGRAZIOA) komunitatea zen kolonia zer-tzen zuena. Desarroilatu ere modu hone-tan desarroilatu da kolonialismo klasi-koa: grekoek, a.b., Mediterraneo inguru osoan koloniak zeuzkaten. Maila hone-tan, kolonia/kolonialismo hitzek, balio positiboa daramate gehienbat (kolonialdu = zibilizatu adinatsu). 4.- Kolonialismo modernoaren garaian, hots, 1880 inguru-tik aurrera, \*inperialismo modernoaz bat eginez, eta gaurdaino, kolonia/kolonialis-mo kontzeptuek jatorrizko esanahiaren zehazki alderantzizkoa hartzen dute, hain zuzen «kolonialdu» (landu, zibilizatu) ez den, baina konkistatu den eta explotatzen den lurraldea adierazteko erabiltzen baitira: a.b., afrikar koloniak, europarrek han ez baitute «kolonia» aipagarrikeri eraiki (adiera klasikoan), soilki nagusitasun poli-tikoa eta explotazio ekonomikoa prakti-katu baizik. Teoria leninistaren arauera (ik. MARXISMO-LENINISMOA) kolonia klasi-koa nagusiki ezaguteratzen zuena, \*me-tropoliaren \*administraziopean egotea bazen, kolonia moderno, (inperialismoa-ren arokoa), explotazio ekonomikoak ezaguteratzen du. Alabaina, bai usadio arruntean eta bai zientzia politikoetan, berjabetasun (ik. INDEPENDENTZIA) politi-ko gabeko \*lurraldeari esan ohi zaio kolo-nia; eta independentzia politikoa irabaziz gero ez zaio kolonia esaten, nahiz menpe-tasun ekonomikoan iraun, lurraldeontzat \*Hirugarren Mundu kontzeptua zabaldu baita.

*Jose Azurmendi*

KOLONIALISMOA; INPERIALISMOA; HIRUGARIEN MUN-DUA.

**Kolonialismoa**

\*Inperialismoaren forma espezifikotzat harturik, europar inperialismo moderno adierazteko erabiltzen da gaur gehienbat (itsasoz bestaldekoa eta herri «primitiboen» gainekoa). 1. - Kolonialismoak, lehenik, inperialismo klasiko guztien ezaugarriak ditu (xede, \*lurralde menperatuaren antolaera, zapalketa eta